DURANGO
Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

DURANGOKO UDALAREN "JULENE AZPEITIA LEHIAKETA 2022" LIBURUAREN DISEINUA, MAKETAZIOA ETA INPRIMAKETA XEDE DITUEN ZERBITZU-KONTRATUA ARAUTZEN DUEN BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Lizitazioaren xedea da *Julene Azpeitia lehiaketa 2022* liburuaren diseinu, maketazio eta inprimaketa egitea.

2.1 LANA EGITEKO MODUA ETA ENTREGA-EPEA

- **Materiala**: Durangoko udalak, beranduen, 2022ko azaroaren 4an emango dizkio esleipendunari liburua egiteko behar duen materiala, hau da, testuak zuzenduta, ilustrazioak eta irabazleen argazkiak.
- **Diseinua eta maketazioa**: lizitatzailearen ardura da liburuaren diseinua eta maketazioa prestatzea eta udaleko solaskideari helaraztea.
- **Behin behineko frogak**: lizitatzaileak behin behineko liburua bidaliko dio e-postaz udaleko euskara saileko teknikariari honako helbide honetara: euskara@durango.eus.
- **Behin betiko onarpena**: Euskara saileko teknikariak onespena emango dio liburuari berak hala irizten dionean, baina, betiere, azaroaren 18a baino lehen, lizitatzaileak denbora izan dezan liburua inprimatzeko.
- **Entrega**: Entitate esleipendunak 2022ko abenduaren 2an entregatuko ditu liburuak Durangoko Udalean.

2.2. LIBURUAREN EZAUGARRIAK

- **Ezaugarri teknikoak**
  Tamaina: 165 x 240
  Orrialdeak: 120 orrialde koloretan inprimatuta + guardak inprimatu gabe.
  Paper estukatu matea 170 gramokoa.
  Azalak: 150 gramo matean koloretan inprimatua eta plastifikatuta matea alde bat.
  Koadernaketa: tapa gogorra al cromo.
  Maketazioa: liburu osoaren maketazioa egin behar da.
  Eskaneatzea: ilustrazioak eskaneatu behar dira.
  Ale-kopurua: 600.

2.3. LIBURUAREN JABETZA INTELEKTUALA

Julene Azpeitia lehiaketa 2022 liburua Durangoko Udalaren jabetzakoa izango da.

3. AURREKONTUA

Gehienezko aurrekontua honako hau da:

BEZ gabeko aurrekontua	5.598,00€
BEZ %4	223,92€
Guztira	**5.821,92€**

3.1. AURREKONTU-PARTIDA

Durangoko Udaleko euskara sailaren partida honetatik ordainduko da: 61 22607 3350.

3.2 AURREIKUSITAKO BALIOA

22.392,00 euro (BEZ gabe)**.**

4. ORDAINTZEKO ERA

Ordainketa lana entregatu eta faktura aurkeztu ostean egingo da, betiere, faktura elektronikoaz arduratzen den udaleko teknikariak oniritzia eman eta gero.
Faktura era elektronikoan aurkeztu behar da (FACE) hurrengo estekan: https://face.gob.es/es.
Faktura elektronikoa egiteko behar diren DIR 3 kodeak honako hauek dira:

Kontabilitate bulegoa	L01480274
Kudeatzen duen organoa	L01480274
Unitate organikoa	LA0023003

5. EXEKUZIO-EPEA

Kontratuak **URTE BETEZ (1)** iraungo du, eta beste HIRU (3) URTEZ luza daiteke.

Firmado digitalmente por ATUTXA BALENTZIAGA JUAN ANTONIO - 14949623Z
Nombre de reconocimiento (DN): c=ES, serialNumber=IDCES-14949623Z, givenName=JUAN ANTONIO, sn=ATUTXA BALENTZIAGA, cn=ATUTXA BALENTZIAGA JUAN ANTONIO - 14949623Z
Fecha: 2022.07.18 16:13:17 +02'00'